

Gernuarekin erreakzionatzen duen pixoihala.

Goizane Sáenz de la Fuente, Irati Castro, Marta Codesido, Garazi Sainz eta Jon Xabier Basogain.

Gure produktuak orain arte soluziorik izan ez duen arazoa konpontzen du. Askotan, edozein edadeko pertsonak; (umeez eta nagusiek batez ere) pixoihalak eramaten dituzte. Pertsona hauen edadeko kontuak direla eta askotan zailtasunak izaten dituzte pixoihala aldatzeko eskatu behar dutenean. Pixoihala aldatu behar duenak askotan ez daki noiz aldatu behar duen pixoihala hau irekitzen ez badu, eta normalean aldatzeko beharra dagoenetik aldatzen den arte denbora luzea igarotzen da.

Gure pixoihalari esker ez dago pixoihala irekitzeko beharrik. Gernuarekin kolorez aldatzen den zinta bat eramango du gerrialdean gure pixoihalak eta horrela ikustearekin bakarrik jakingo dugu aldatzeko beharrik dagoen ala ez.